

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA (LBU) (2013)

Mendeko senideak zaintzen, emakume okupatuek %50 ordu gehiago ematen dituzte gizonek baino Euskal AEn

Enpresa txikietan eta sektore pribatuan lan egin nahiago duten pertsona-kopurua haziz

Etiket kanpo lanean ari diren emakumeek 4,9 ordu ematen dituzte egunean 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak zaintzen, eta gizonek 3,1, Eustaten datuen arabera. Mendeko pertsonak zaintzen gizonek 1,5 ordu egunean eta emakumeek 2,3.

Emakume okupatuen %55,4k lan ordainduaz gain 5 ordu edo gehiago pasatzen ditu egunean adin txikikoak zaintzen. %17,2k denbora horixe bera ematen dute mendekoak zaintzen. Gizon okupatuen %45,1ek 2 ordu edo gutxiago pasatzen ditu seme-alabak zaintzen.

2010eko datuen aldean, seme-alabak zaintzen 5 ordu edo gehiago pasatzen dituzten emakumeen portzentajea lehengoan da, eta mendeko pertsonetikoa egiten txikituz.

Euskal AEko okupatuen artean etxeko lanak banatzean oraindik handiagoa da aldea: Gizonen %89,9k 2 ordu edo gutxiago pasatzen ditu etxeko lanetan, emakumeen %29,6k 3 edo gehiago.

Banaketa horrek dakar emakume okupatuen ia seitik bat batere gustura ez egotea bikotekideak etxean egindakoarekin. Gizon okupatuen %73,1, berriz, oso gustura dago bikotekideak eginikoarekin.

Emakume langileen gogobetetasuna seme-alabak zaintzen (handia, %57,etan),baita etxeko lanekin ere (%43,6tan), gizonen gainetik da (%48,5, %39,6).

Lan ordaindua eta eguneroko bestelakoak bateratzeko zailtasunaz, Euskal AEko pertsona okupatuen %34,3k dio oso zaila dela lana eta mendekoekikoa egitea bateratzea. Zailtasun-maila txikiagoa da (%27,1) adin txikiekikoa egiteko eta antzekoa (%24,3) norbere gauzetarako.


Pertsona okupatuen ia erdiak irteteko ordutegi malgua du

Biztanle okupatuen %20,9k beti, eta antzeko ehuneko bat zenbaitetan, lanaldia luzatu beharrean egoten dira.

Irteteko malgutasunaz -bateragarritasuna hobetzeko beste lanabes bat- okupatuen ia erdia -%46,4- baliatzen da; emakumeak gutxiago -%43,8- gizonak baino -%48,7-. Etxean bertan,%7,7k noizean behin lan egiten du eta %4,2k egun erdietan gutxienez.

Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurrien artean, lanetik irten ahal izatea okupatu gehien-gehienaren eskura dago; soldatarik gabeko egunak okupatuen %58,1ek eska ditzakete. Langile erdia inguruk aise lor ditzake eszedentziak edo lanaldi-murritzketak.

Euskal AEko biztanle okupatuak, baimenak eskatzeko zailtasunaren arabera (%). 2013



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta

Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatzeak sustapen profesionalari kalte egingo dion beldurra zertxobait handiagoa da emakumeengan (%31) gizonengan (%29,7) baino. Bost emakume okupatutatik batek uste du amatasuna kaltegarri litekeela sustapenerako; berriz, gauza bera aitatasunaz gizonen %7,4k bakarrik uste du. Halere, bost gizon enplegudunetako batek uste du aitatasun-baimena eskatzeak kalte handia lekarkiokeela ibilbide profesionalari.

Pertsona okupatuaren lan-lehentasunez, lurraldeka ez dago alde handirik; soldatukoak izatea nahiago dutenak Euskal AEko baliotik (%83,3) gertu dabiltza. Gipuzkoako pertsona okupatuaren %51,3k nahiago duete enpresa txiki bat lanerako, %52,1ek sektore pribatua eta %15,5ek autonomia izatea. Oso bestelakoak dira bizkaitar okupatuaren lehentasunak: %58,3k enpresa handia aukeratuko luke, %57,6k sektore publikoa. Arabarrak gertuago daude bizkaitarrengandik, baina erdibide batean: %57,3k enpresa handia aukeratuko luke, %54,4k sektore publikoa.


2010aren aldean ez dago alde handirik lan-egoerarekiko lehentasunez. Enpresaren tamainari eta okupazio-sektoreari erreparatuz gero, aldeak handiagoak dira; ehuneko 10 bat puntuz hazten dira bai lanerako enpresa txikia nahiago dutenak bai sektore pribatuaren aldekoak.

Bikotearen bi kideak lanean ari badira, adin txikikoak zaintzea, lanalditik kanpo, %94,7tan bien ardura da; aitarena, bakarka, %0,4tan, eta amarena bakarka %2,6tan.

Familia-etxe horietan eta adin txikikoak lanaldi barruan eta eskola-ordutegitik kanpo zaintzen %39,6tan senideak edo ordainketarik jasotzen ez duten pertsonak aritzen dira; %37,3tan bi bikotekideak eta %10,4tan ordainketa jasotzen duten pertsonak.

Mendeko senideak zaintzekotan, emakume okupatuaren %31,6k egunero 3 ordu edo gehiago ematen ditu; gizonen %18,8k egiten du beste horrenbeste.

Euskal AEko biztanle okupatuaren 15 urte baino gutxiagoko seme-alaben zainketa lanaldiaren barruan eta eskola-ordutegitik kanpo, bi bikotekideak lanean ari diren familietan edo guraso bakarrekoetan (%). 2013



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta (LBU). Prentsa-ohar gehiago

Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta (LBU). Datu-bankua